



ERNARDO AIZPITARTE 'KABRA' / Joxin Iturriotz / **uzfarria**

Bernardo Aizpitarte 'Kabra'

Joxin Iturriotz

uztarria

© Egilea. Joxin Iturriotz

© Uztarria Komunikazio Taldea

2012ko apirila

Azala. Eregi Euskara eta Komunikazio Zerbitzuak (Azpeitia)

Diseinua

Maketazioa. Uztarria Komunikazio Taldea

Inprimaketa. Leitzaran Grafikak (Andoain)

Uztarria Komunikazio Taldea.

Helbidea. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia (Gipuzkoa), 20730

Posta kutxa. 227, Azpeitia

Telefono zenbakia: 943 15 03 58

Fax zenbakia: 943 15 03 58

Posta elektronikoa: uztarria@topagunea.com

web orria: www.uztarria.com

AURKIBIDEA

Sarrera	07
Gurasoak	11
Txikitan	12
Iparraldera ihesi	18
Fronte antielektoralak	20
Borroka armatua	24
Atxilotua	25
Iparraldera berriro	32
Gasteiz	34
Kartzelaz kartzela	36
Askatasuna	40
Kioskoa	44
Hausnarketak	45
Irteera kolektiboaren aukera	47
‘La Rubia’	52
Osaba santos zaintzen	55
Bernardoren gaixotasuna	57
Omenaldiak	59

SARRERA

Bernardo Aizpitarte *Kabra* 2008ko urriaren 7an hil zen. Hain modan dagoen Interneten begiratu gero, askok agur eta ohore egiten diote Komando Autonomo Antikapitalisten hildako militanteari. Eta hala da, Kabra Komando Autonomo Antikapitalistetako militantea izan zen. Borroka armatuan aurrean ibilitakoa zen, eta badirudi horri lotuta gelditu dela askoren memorian. Gaur egun, borroka armatuaren oso balorazio ezberdinak egiten diren arren, garai hartan ezinbestekoa ematen zuen gizarte aldaketa borroka armatuaren bidez egin beharra.

Halere, borroka armatua arlo bat gehiago besterik ez zen Kabraren pentsaera edo ideologian, ez beste arloak baino garrantzi handiagokoa, ez gutxiagokoa. Gizabanakoaren nortasuna aldarrikatzea, inor ez dagoela beste inoren gainetik, ordezkariak eta alderdi politikoek gizabanakoa zapuztu baino ez dutela egiten, erabakiak hartzeko orduan asanbladari nagusitasuna ematea... Esan dezagun langile klasearen “autonomia” izenaren atzean dagoen ideologiaren ezaugarri batzuk indarrean daudela gaur egun (!langile autonomia langile kla-

seak gauzatu duen praktika historiko bat da, eta langile mugimenduaren iritzi ildo bat) (1 oharra). Ideologia hori landu eta, batez ere, bizi nahi izan zuen Bernardok, teoria landuz eta praktikan ipiniz.

Gustura litzatekeelakoan nago maiatzaren 15eko mugimenduak ikusita. Espontaneoki eta inor ordezkatu gabe elkartu diren milaka gazte eta ez hain gazte ikusita. Asanbladatan biltzen erabakiak hartzeko, lanak eta eginbeharrak arduradun nagusirik gabe denen artean antolatzen... Baina, aldi berean, adi izango zen, ez daitezela denen ize-nean hitz egiten duten ordezkariak azaldu, ez daitezela agintariak agertu, ez dezala inork bere menpean jarri sortu den mugimendua. Orduan bere balioa galduko luke mugimendu horrek, eta betiko gizarte eredura aldatuko ginateke. Ez zen hori Bernardoren eredua.

Hori azpimarratu nahi dugu. Borroka armatua albora utzita ere, badagoela hor bizi-bizirik dagoen ideologia. Bernardok hori aldarrikatu nahi zuen. Norberaren arabera hitz ugari har dezake, eta guk halabeharrez “autonomia” kontzeptuaren izenpean batu dugu. Agian Bernardori ez zitzaion gustatuko bere pentsaera izen baten menpe jartzea. Guk pentsaera horretara hurbildu nahi dugu.



Umetako argazkia, baserritar
jantzita.

Ez da erraza hori guztia praktikan jartzea. Bere garaian ahalegin horiek guztiak borroka armatuaren eta klandestinitatearen menpean gelditu ziren. Borroka armatuak eta klandestinitateak bestelako ahalegin guztiak irentsi egin zituen, eta langile mugimenduaren eta mugimendu sozialen beherakadarekin eta borroka armatuaren bukaerarekin batera pentsaera bera ere galdu egin zela ematen zuen. Bernardo saiatu zen kartzelan bide hori aurrera eramaten. Eta sutuki defendatzen zuen Azpeitian Gerraundi baserrian izandako esperientzia. Baina kartzelatik irtendakoan saiatu beharko zuen bere bizitzan praktikan jartzen pentsatzen zuen hori.

Ez zen protagonismoa bilatzen zuen horietakoa, eta ez zen inoren ordezkari moduan azalduko. Baina ideiak garbi dituzten horietakoa zela esan dezakegu. Ados ez baldin bazegoen, suabe-suabe beti esango zuen. Batez ere, behar zuenari laguntzeko beti prest dagoen horietakoa zen. Hori zen bere ideologia praktikan jartzeko moduetako bat. Bere bikotekidearekin, Marije Amenabar Eizagirrerekin, horretan saiatu zen. Osaba Santos gaixotu zenean, buru-belarri saiatu zen hura zaintzen, ahalik ondoen izan zedin. Eta emankortasun

hori litzateke Bernardoren beste ekarpenetako bat. Ez zen nabarmentzen zen horietakoa, baina hor zegoen, behar zenean. Emankortasun hori zen bizi zuen pentsamendua praktikan jartzeko modua. Azken arnasa eman arte horretan saiatu zen.

GURASOAK

Gurasoak Joxe Aizpitarte Arozena eta Ramona Arruti Martikorena zituen. Aita Iturbide baserrian jaio zen eta, hasiera baten beste baserri batera morroi joan baldin bazen ere, garai hartan ohikoa zen moduan tailerrean gazte-gazterik hasi zen, ofizioa ikasten. Hasieran *Uniyo*-ren tailerrean hasi zen, eta gero tren geltoki ondoan zegoen Lasa tailerrean, bietan tornulari. Ama, Ramona Arruti, *Oriyo* etxekoa zen. Ezkondutakoan emaztearen etxean jarri ziren bizitzen, Elizkaleko 32. zenbakian, *Oriyonekoan*. Hortik datorkio izena familiari, baita Bernardo eta Joxe Manuel semeei ere.

Etxe horren azpian ikatz biltegia zegoen, eta *Oriyonekoek* ikatza saltzen zuten. Joxek biltegi horretan tornulari tailerra eratu zuen, ikatz biltegia mantenduz. Ofizio biak jarraitu zituen handik aurrera. Bernardori txiki-txikitatik tokatu zitzaion

aitari laguntzea, bai ikatza partitzen, bai tornulari lanetan.

Joxe familia nazionalista batetik zetorren, eta hortik zetorkion *Irujo* ezizena, lagunek ipinitakoa, nafar politikariarekin parekatuz edo. Euzko Alderdi Jeltzalearen afiliatua izan zen, eta Aberri Eguretara joan zalea zen.

Zaletasunen artean mendira joatea zen nabarmena. Lagun Onak MB-ren irteeratan parte hartu ohi zuen, eta bertako juntako partaide ere izan zen.

TXIKITAN

Bernardo Jesus Aizpitarte Arruti 1955eko uztailaren 14an jaio zen, *Oriyo*-neko etxean, goiko ezpainaz zatituta jaio ere. Operazio asko jasan behar izan zituen ezpainak behar bezala ipintzeko, ondo gelditu zen arte. Heldutakoan bizarra uzten hasi zen, eta apenas ezer nabarmentzen zitzaion. Osaba jesuita baten omenez Bernardo izena ipini zioten eta, garaiko ohiturari jarraiki, amonaren besoetakoa izanik, Jesus.

Eskolan Miserikordian ibili zen. Gero nazionalerantz, eta azkenik garaiko Instituto Laboral-era joan

zen. Ez zen kirolean jolastu zalea, eta gutxitan agertzen zen eliz atarira lagunekin futboleant jolastera, garaiko mutikoen ohiturei jarraituz. Pilotan bai, aritzen zen, noizbehinka bazen ere. “Garbi nuen futbolaria edo horrelako ezer ez nintzela izango, behintzat...”, adierazi zion Uztarria aldizkariari. Berak nahiago izaten zuen beste lagun batzuekin kontu kontari aritu, edo zertxobait irakurri.

Oso atsegin zuen mendira joatea, jaiero-jaiero joaten zen, eta igande askotan Santa Engrazirako joan-etorria egiten zuen. Lanean hasitakoan, lantokitik etxera zuzenean etorri beharrean, askotan mendiz etortzen zen. Landetan aritu zenean, Odriatik bueltan, eta Lasaoan zebilenean, Orandatik. Horregatik ipini zioten ‘Kabra’ ezizena, inork ez badigu horrelakorik ziurtatu ere. Pirinioetara irtenalditxoak ere egin zituen. Gustura joaten zen mendira, batez ere oso giro abertzalea aurkitzen zuelako. Euskal kanten eta bertsoen oso zalea zen, eta berak asko zekizkien. Bidean beti kantuan joaten zen. Giro hartan, jantzian beti zerbait nabarmena eraman behar izaten zen, kolore txuri, gorri eta berdea konbinatuta. Lagun batek gogoan du borladun kaiku horietako bat askotan eramaten zuela.

Poliki-poliki gai sozialak eta politikoak aztertze-
ari eta eztabaidatzeari ekin zion, eta kezka hori
bizitza osoan izango zuen buruan. Lagunek oroit-
zen dutenez, beraiek bazuten intuizioa Bernardo
pauso bat aurrerago zegoela politika kontuetan eta
ondoriozko inplikazioan. Garaiko giroak ere lagun-
du egiten zuen politika mundu horretan murgil-
tzen. Baina giro oso klandestinoak zen ordukoa, eta
intuizioa bai, baina hortik aurrerakoak zehaztea ez
da hain erraza.

Hori bai, politikan zeharo sartu aurretik argi
zeukan independentista zela, eta klaserik gabeko
gizartea amesten zuela. Ez zuen dirigismorik onar-
tzen, eta alderdien kontrako jarrera hartzen joan
zen. Erlijio kontuetan aurka agertzen zen, ateo
konbentzitua zen. Ezagutu zutenek batez ere tole-
rantea zela aitortzen dute. Esan beharrekoak esan-
go zituen, baina sekula ez burla eginez. Errespetua
beti mantentzen zuen.

Lagun batek kontatzen du behin tela gorriak eta
berdeak eskatu zizkiola, eta etxean begiratzeko
esan. Lagunak ez zekien zertarako nahi zuen, baina
batzuen artean lortu zuten zertxobait biltzea.
Hurrengo astean Xoxoteko eguna zen, eta egun
horretan ikurrina agertu zen San Inazioren ondoan.



Familiako argazkia. Aita Joxe,
ama Ramona, anaia Joxe Manuel
-zutik- eta Bernardo.



elaguan elurretan, lagunekin.
labra ezkerretik hasi eta
urrenekoa da.

Kalean, ordea, zelatatua eta pertsegitua sentitzen zen. Beti zegoen adi nor azalduko, guardia zibilak eta *sekretak* ugari zirelako orduan, eta askotan atzetik izaten zituelako. Kalean horietako norbait ezagutuz gero, burua makurtu eta erdi ezkutatuta joango zen aurrera. Eta urrutitik sumatuz gero, beste espalaira pasatzen zen. Behin, *sekreta* bat atzetik zuela, lagun bat eta biak Pikua tabernara joan ziren, Bernardok hala aginduta. Aurreko atetik sartu, eta atzetik irten zuten. Kanpoan gelditu zen *sekreta* hura Bernardok noiz irtengo zain.

Dena dela, Bernardo ez zen nabarmentzea gustatzen zitzaion horietakoa. Konfiantzaz eta talde txikian hitz egin zalea zen. Ez zen jende askoren aurrean diskurtsoak botatzen zituenetakoa. Horrelakoetan, esan beharrekoa labur esan, eta kito. Politikan oso argia zen, oso kritikoa, argumentuak bilatu eta azaltzen zituenetakoa, baina ahal zela lagun giroan, talde txikian.

Lagun batek dioenez, altruismoa eta idealismoa sekula baino indartsuago ziren garai hartan. 1960. urtea baino lehenago erlijio arloa zen nagusi, baina gero politika arlora bideratu zen hori guztia. Giroak lagundu egiten zuen politika munduan sartzen. Mugimendu politikoak gero eta zabalagoak ziren,

errejimenaren aurkako ekintzak gero eta ugariagoak, eta hor katea sortu zen. Bernardo bete-beterik murgildu zen errota horretan.

Sekula ez zuen alkoholik edaten, ez gaztetan, ezta gerora ere. Freskagarriak, batidoak eta zumoak edaten zituen, eta kafea hartzera zaletu zenean, kafesne handiak. Oso gustukoa zuen kafesne handi bat zopekin hartzea. Puruak erretze zalea ere bazen. Ez zen diskotekara joaten. Nahiago izaten zuen inguruko auzoetako festetara joan, baina ez diskotekara. Etxera garaiz joan zalea zen eta, nabarmena denez, sekula ez zen mozkortu.

Lanean aitari laguntzen aritzen zen, ikatzarekin eta tornulari lanetan. Zubi inprimategian izan zuen lehenbiziko lan ordaindua. 17 urterekin, 1973ko otsailaren 19an, Danona lantegian hasi zen lanean. Bertan bileretan eta asanbladatan nabarmentzen joan zen. Garai hartan sartu zen Bernardo JOC (Juventudes Obreras Cristianas) taldean estraine-koz. Gero ETArekin Frente Obrero delakoan sartu zen, baina Bernardo sartu zenean ETArengandik banatze prozesuan zegoen, LAIA alderdia sortzeko. Bernardo LAIA partidu politikoan militatzen bete-betean sartu zen, hasiera-hasieratik. Panfletoak, idatziak eta abarrak ateratzeko multi-

kopista bat eskuratu zuten, eta Bernardo izan zen multikopistaren arduradun. Urbigaineko txabola baten ezkutatu zuten, eta hara joaten zen Bernardo, idatzi eta panfleto horiek inprimatzera. LAIAko propaganda aparatuko arduradunetako bat izan zen.

IPARRALDERA IHESI

Lagun batekin joan zen Bernardo Landetako San Eloi jaietara. Bordatxo tabernan tragoa hartu zuten. Bernardok, beti bezala, txokolatezko batidoa edo freskagarria hartuko zuen. Esan bezala, sekula ez zuen alkoholdun edaririk hartzen. Ezta gerora ere. Bordatxo tabernan tragoa hartu, eta ondoko tabernara joan ziren. 1974ko abenduaren 4a zen. Taberna honetara Bernardoren ezagun bat agertu zen. Honekin hitz egin eta gero, lagunarengana itzuliz, horrela esan zion:

-Alde egin ezak hemendik, gaur gauza onik ez zegok eta.

Lagunak berehala alde egin zuen bertatik, eta etxeratu egin zen. Ez zuen Bernardoren berririk izan, Iparraldean gordeta zegoela jakin zuen arte.

Itxura denez, poliziek aurkitu egin zuten

Bernardok erabiltzen zuen multikopista. Eta delako ezagun hori abisatzera etorri zitzaion. Bernardo beste aldera joan zen, eta Baionan zeuden beste errefuxiatu batzuekin, tartean baita azpeitiarrak ere, bizitzen jarri zen. Hemeretzi urte besterik ez zituen. Denen artean gazteena izango zen Bernardo. Baionan jarri zen bizitzen. Han baziren bi emakume Bernardo baino zaharragoak, noski. Etxera berandu etortzen zenean errieta egiten zioten, non ibili zen galdezka, eta horiek ez zirela etxeratzeko orduak esanaz. Atzerriratu egin behar, eta bi 'amatxo'-ren kontrola jasan behar. A zer nolako klandestinitatea!

Orduan errefuxiatuen artean normala zen frantsesa ikastea. Frantziako Gobernuak dirua ematen zuen, eta horrek ere lagundu egiten zuen. Bernardo Arcachon-era joan zen, eta frantsesa ikasten aritzen zen, hilabete batzuetan. Hortik aparte, Baiona eta Hendaiako zenbait etxetan egon zen, eztabaidak eta lan politikoa utzi gabe.

Tartean, Txiki eta Otaegiren heriotza-zigorren kontra antolatutako ekintzetan parte hartu zuen. Espainiako kontsulatuaren kontra Molotov koktela botatzera joan zen, baita bota ere. Baina handik egun batzuetara polizia frantsesak harrapatu egin

zuen. Abuztua zen, eta abendura arte eduki zuten preso. Orduan, baldintzapeko askatasuna eman zioten. Franco hilda zegoen.

Franco hil ondoren, Espainiako Gobernuak transizioa prestatzen hasi zen, eta errefuxiatuei zego-kienez, malgutasuna handitzen joan zen, amnistia heldu zen arte. 1976ko udaberrian itzuli zen Bernardo Azpeitira. Beste aldean zeuden gainontzeko azpeitiarrak poliki-poliki etortzen joan ziren.

Azpeitira etorri, eta Danonara itzuli zen lanera. 1976ko apirilak bost egun zituen. Bernardo ordura-ko LAIA alderdian bete-betean sartuta zegoen, eta lan horri jarraitu zion. Apirilean atxilotuta ere eduki zuten, LAIAko propagandarekin harrapatu zutelako. 10.000 pezetako fidantza ordainduta askatu zuten. Azpeitian eztabaida taldeak antolatu zituzten, eta Bernardok idatziak ematen zituen, bilera horietan eztabaidatzeko. Aldaketa urteak ziren, eta giroa bero zegoen. Franco hil ondorengo etorkizuna zegoen jokoan.

FRONTE ANTIELEKTORALA

Espainian lehenengo hauteskundeetara deitu zuten. Ezkerreko alderdiek zer egin erabaki behar

zuten. Batzuek aurkeztea erabaki zuten. Beste batzuek, aldiz, ez aurkeztea. KAS alternatibaren eztabaida zegoen horren guztiaren atzean. Horrela kontatu zuen Bernardok berak egindako bidea:

“Lehen Hauteskunde Orokorretarako deialdiaren garaian sortu zen talde bat gure inguruan eztabaidatzen zuena, batetik, hauteskunde horietan parte hartu ala ez, eta bestetik, zetorkigun demokrazia burgesa deituriko errealtateari guk aurre nola egin.

Ordezkariei boterea emateaz, erakundeen jerarkiaz, leninismoaz eta abar eztabaidatzen genuen; eta asanbladak eta asanbladari botere guztia ematea onartzen genituen, eta ordezkari / ordezkatu eta buruzagi / menderatuen aurrean zeuden kontraesanak azaltzen saiatu.

Eztabaida hauek guztiek, analisi txiki bat egiteko oso zabalak, plataforma antiparlamentario eta antielektoral baten sortzea ekarri zuten eta demokrazia zuzenaren alde egiten genuen lan, botere guztia asanbladari aldarrikatuz.

Horregatik, asanbleariotzat hartzen gintuzten, nahiz eta benetako eztabaida ildo leninista zuten erakunde eta alderdien eta langile klasearen ildo autonomoaren artekoa izan. Ondorioz, batzuek burgesiaren eta parlamentarismoaren kontra borroka autonomoa aldarrikatzen zuten, eta besteek klase arteko elkarlana, sistema

diktatorialetik demokrazia burgesera pasatzeko bide horretan.

Euskal Herria mailan aurrez aurre topo egiten genuen erakunde ezkertiar eta abertzaleekin. Berauetan lagunak genituen, eta gainera, geuk ere erakunde horietan militatu genuen duela gutxi arte” (2).

Perspektiba berria hauteskundeetatik haratago zihoan. Borroka, sektore eta belaunaldi berriekin egiteko ahalegina aipatu behar da.

“Saiatzen ginen eguneroko kontuak, ustez garrantzi gabekoak, kontu politikoak ere bazirela ulertarazten, eta kontu politiko horiek gizarteratzen. Ohituta geunden langile iraultza burutzeko ezinbesteko arloei buruzko eztabaidak eta ekintzak egiten, batez ere lantokietan, eta eguneroko borrokaren bestelako arloak albora uzten genituen (feminismoa, gazteak, soldaduska...), borrokaren zati ez balira bezala” (3).

Ikuspegi desberdina ageri-agerikoa da, eta ezaugarri garrantzitsuak izango dira horiek Kabraren ideologian.

Garai horretan zatiketak gertatu ziren LAIA alderdian, eta Bernardo bileretako eztabaidetan protagonistetako bat izan zen. Gerora LAIA (EZ) deitu zioten taldean kokatu zen Bernardo, hainbat azpeitiarrekin batera.

“Geroxeago, ekintza gehiago izan ziren eta ekintza batek beste bat zekarren, eta azkenean, gero eta selekzio gutxiago egitera eta borroka armatuaren inertziak berak ia-ia errepresioaren aurkako ekintzetara mugatzera eram zuen, borroka armatu autonomoaren ikuspegia zapuztuz” (7).

“Dinamika honekin mugimendu sozialaren eta armatuaren arteko lotura etetera iritsi zen. Komando Autonomo Antikapitalisten borroka armatuarekin gero eta gehiago identifikatzen gaituzte eta ez gure borrokaren oinarri izan behar duten borroka eta mugimendu sozialekin” (8).

Helburua ez zen beste talde armatu bat sortzea. Borroka armatua ikusten zuten “borrokarako beste tresna bat gehiago bezala (ez garrantzi gehiagokoa eta ez gutxiagokoa) eta ideologikoki borroka autonomo sozialekiko loturarekin” (9).

Borroka armatuaren hautua eginda zegoen.

ATXILOTUA

Ordizian, 1978ko martxoaren 4an, goizeko 08:30ean, komandoko bi kidek lapurtutako auto batekin istripua izan zuten, zubi baten gainean zintzilik gelditu zirelarik. Une horretan Guardia

Zibilaren *jeep*-a pasatzen ari zen bertatik, eta ihes egiten saiatu ziren. Guardia zibilek tirokatu egin zituzten. Komandoko kideak ihes egitea lortu zuen, baina Bernardo zauritu egin zuten. Halere, trenbidera salto egitea lortu zuen, baina harrapatu egin zuten. Honakoa, informazio ofiziala. Zehaztasunetan sartuta beste era batera ulertuko dugu gertatutakoa.

Ekintza bat prestatu zuten, eta Ordizian, errepide nazionalera ateratzen zen *stop* batean jarri ziren. Iritsitako lehenengo autoa pistolaz mehatxatu eta gidariari irteteko agindu zioten. Gidariak umearekin ospitaleko larrialdietara zihoala adierazi zien, umea gaixorik zegoelako, eta mesedez joaten uzteko erregutu zien. Baita utzi ere! Atzetik zetorren bigarren autoa gelditu, pistolarekin txoferra mehatxatu, autotik irtenarazi, eta beraiek sartu. Nazionalera irtetea konturatu ziren poliziaren auto bat zetorrela bertatik. Konturatu egingo zirelakoan, lehenbailehen alde egiten saiatu ziren, baina istripua izan zuten. Lehenengo autoa hartu izan balute, horrelakorik ez zen gertatuko. Suertea bilatu egiten omen da, eta Bernardok ez zuen ahaleginik egiten horretan, baina bizitzan ere ez zuen zorte handirik izan, zoritxarrez. Bere abokatu

Xabier Aranburuk zioen sekula ez zitzaiola otuko loterian Bernardoren zenbaki berbera jokatzea.

Istripuaren ondorioz, zaurituta gelditu zen Bernardo, eta Beasaingo San Miguel klinikara eramán zuten. Han operatu egin zuten, eta hilabeteak egin zituen osatzen. Ama egunero joaten zitzaion bisitan, eta gauak txandaka egiten zituzten anaiak eta osabek. Martxoan sartu, eta uztailean oraindik ospitalean zegoen.

Anaiari tokatzen zitzaion batean, joan beharrik ez zeukala adierazi zion Bernardok. Joxe Manuel ez zen joan. Hurrengo egunean ama eta osaba bat agertu ziren ospitalera. Bi guardia zibil izaten ziren ate aurrean zaintza egiten. Haiei kasu egin gabe barrura sartu ziren. Eta Bernardo falta. Gelatik atera eta, guardia zibilei ezer esan gabe, erizainengana joan ziren. Erizain batek fitxa begiratu, eta egitekorik ezer ez zuela ikusita, gelan behar zuela erabaki zuen. Halere, medikuarengana jotzea pentsatu zuten. Medikiak ezer ez zekiela ikusita, orduan konturatu ziren gertatuaz. Horregatik esan zion Bernardok anaiari ez joateko. Medikiak isilik egoteko esan zien denei, eta ezer gertatu ez balitz bezala jokatzeko. Eta ezer esan gabe ospitaletik alde egin zuten.

Bernardok soka lotu, leihotik irten, eta sokatik behera egin zuen. Lehenengo pisuan ginekologia gela zegoen, eta emakume haurdun bat zegoen hanka zabalik, Bernardori bizkarra ematen. Beraz, emakume hark ezin zuen Bernardo ikusi, baina bai ginekologoak. Harrituta, begiak zabal-zabalik geratu zen, Bernardori begira. Honek ikusi, eta atzamarrarekin isilik egoteko agindu zion. Keinu eginez baietz erantzun zion ginekologoak. Beheraino jaitsi, eta lagun bat zuen zain Bernardok. Berarekin joan zen, goizeko ordu txikietan. Horrela, ama eta osaba iritsi baino lehen Bernardo urruti samar zegoen ordurako.

Zaintzan zeuden guardia zibilek gerora jakin zuten zerbait arraroa gertatzen ari zela. Galdezka hasi, eta Bernardo falta zela konturatu ziren. Inork ez zien ezer esaten, denak ezjakinean zeudela ematen zuen. Halako batean, leihotik behera zintzilik zegoen kordela aurkitu zuten. Orduan konturatu ziren Bernardok ihes egin zuela. Baina berandu zen. Bernardo ezkutuan zegoen ordurako. 1978ko uztailaren 18a zen.

Hurrengo egunean garaiko prentsak bere erara jaso zuen gertatutakoa. *El Diario Vasco* egunkarian, uztailaren 19ko zenbakian, azken orrialdean, azken



Amarekin Beasaingo San Miguel
klinikan.

orduko atalean, *Bernardo Aizpitarrek Beasaingo klinikatik ihes egin du* (10) izenburua ipini zioten berriari. Besteren artean, honela zehaztu zuten gertatutakoa:

“...Zaintzako sendagilea eta gaztearen ama eta osaba bat zortziak eta laurden aldera konturatu ziren ihesa gertatu zela. Bernardo Jesusen senitartekoak bisitan joan ziren klinikara, eta ordubete zain eman zuten, klinikako beste sailen batean zegoelakoan, agian erradiografiak egiten.

Agertzen ez zenez, zaintzako sendagileari galdetu zioten. Honek adierazi zien ez zuela ezer egiteko hitzordurik, eta gaixoak gelan behar zuela zehaztu zuen.

Gela aztertu, eta leihotik zintzilikatutako soka aurkitu zuten. Soka kalerainoko, lurrerainoko, luzerakoa zen. Gaztea zegoen gela 8-2.a zen, lehenengo solairuan. Uste da soka kalera jaisteko erabili zuela.

Bi guardia zibilek etengabe zaintzen zuten gela, ate kanpoaldean, pasilloan. Klean ere, klinikatik kanpo, Guardia Zibilaren jeep-a izan ohi zen aparkatuta, hau ere zaintza lanetan...” (11).

La Voz de España egunkariak ere uztailaren 19ko azken orduko atalean ekarri zuen albistea, *Beasain: ET Ako ustezko militante batek ihes egin du klinikatik* (12) izenburuarekin. Hona deskribapena:

HOSPITAL



Olatz Agudoren marrazkia,
Bernardoren ihesa irudikatuta

1978-VII-18

“...Arratsaldeko zazpiak eta laurden aldera, Bernardo Aizpitarteren ama eta osaba bat bisitan joan zitzaizkion aipatutako klinikara. Gelan ez zenez, mediku azterketaren bat izango zuela uste izan zuten.

Ordubete itxaron ondoren, kezkatu eta zaintzako sendagilearengana joan ziren, non zegoen galdezka. Sendagilea harritu egin zen, ez baitzegoen Bernardok egin beharreko azterketa medikurik. Berriro logelara joan ziren, bertaratu ote zen begiratzera.

Gaixoa ez zela bertan konturatu zirenean, zaintzako sendagileak guardia zibilei abisu eman zien. Hauek zainketarako jeep-a zuten gelako leihoaren azpian, hain zuzen, Aizpitarre zegoen gelaren parean.

Lekua aztertu, eta nailonezko soka berdea aurkitu zuten. Soka klinikako alboko teilatu batetik zintzilik zegoen... ” (13).

Bada aldea bertsio batzuen eta besteen artean!

IPARRALDERA BERRIRO

Ospitaletik ihesi Iparraldera joan zen Bernardo. Guztiz sendatu gabe zegoenez oraindik, Baionako ospitalean sartu zuten. Hilabete eta erdi eman zuen bertan, eta Hendaian geratu zen gero, errehabilitazioa bertan egiteko. Eta handik Parisera. Irrati

libreen funtzionamendua ezagutu nahi zuen. Bolada bat egin zuen Parisen, dokumentu faltsuekin atxilotu zuten arte. Epaiketa bat ere zain zeukan oraindik. 1975ean, Txiki eta Otaegiren aurka-ko epaiketa garaian, Molotov koktela bota zuten Espainiako enbaxadaren aurka, Hendaian. Aspaldiko kontua zen, errefuxiatuta ibili zen lehenengo aldikoa. Gertaera horiek guztiak amnistiaturta zeuden Espainiako estatuan, baina ez Frantziako estatuan. Horrela, Bernardoren kontrako agindua zegoen indarrean, eta Parisen zegoela atxilotu egin zuten. 1979ko otsailaren 10a zen.

Parisen izan zuten preso. Bernardok beste izen bat zeukala esaten zuen, dokumentu faltsuetan agertzen zena, eta bera ez zela Bernardo Aizpitarte hori. Abokatua joaten zenean ere beste izen horregatik galdetzen zuen, jakinik hala ere Bernardorengana zihoala. Baionan epaitu zuten, 1979ko uztailaren 26an. Okerreko identitatearen kontuak ez zion ezertarako balio izan Bernardori. Sei hilabetera kondenatu zuten. Handik gutxira atera zen kartzelatik.

Dena dela, ezin zuen Frantziako estatuan gelditu. Kartzelan zegoela, martxoaren 8an, hainbat lagunek Frantziatik kanporatzeko agindua jaso

zuten, tartean Bernardok. Iparraldean, eta Frantzia osoan, klandestinitatean gelditu beharko zuen. Estatu espainolean sartu-irtenak eginez aritu zen garai horretan.

GASTEIZ

Gasteizen metaleko hitzarmen kolektiboa negoziatzen ari ziren, eta bertara joatea erabaki zuten. Hango mugimendu asanblearioarekin harremanetan jarri ziren, eta borrokan nola lagundu informazioa biltzen hasi ziren. Ez zen kasualitatea Gasteizera joatea.

“Gasteizko borroketan garbi agertzen da langileak bere boterea eratu behar duela inongo arazorik gabe, bere burua berak defendatu eta antolatu behar duela.

Garbi esaten dugu langileriaren boterea batzarretan dagoela. Inongo delegaziorik gabe eta une guztietan batzarrean aukeratutako langileei berriro batzarrak konfiantza kendu ahal izango diela, hau da, delegazio finkorik ez dela izango eta une bakoitzean aukeratutakoen izendapena ezeztagarria izan litekeela.

Gasteizen borroka guztiak langile batzarrak antolatu zituen eta gero herri batzarretara zabaldu zen borroka herri guztira iristeko, diru kaxak antolatuz, herriko mani-

BORROKA HARMATUA HERRI BORROKA DA



bernardo aizpitarte (kabra)



ASKATU



Kabra atxilotutakoan atera zuten paskina.

festazioak antolatuz, eta dena era zeharo horizontalean antolatuz.

Gasteizko borroka haiek gogoratzeko izaten diren manifestazioetan ikusten dugu nola lelo garrantzitsuenak izaten ziren 'langile partidua, langile zatitua', eta sindikatuen aurkakoak" (14).

Ekintza batzuk egin zituzten Gasteizen, baita lapurreta bat egiten saiatu ere. Ez zuten lortzerik izan. Kanean zebilela, 1979ko azaroaren 24an, atxilotu egin zuten. Adiskidea pixka bat atzerago zihonan, beste espaloitik, segurtasun neurri moduan. Bernardo atxilotzen ikusi, eta alde egin ahal izan zuten, baina bi egun beranduago atxilotu egin zuten.

KARTZELAZ KARTZELA

Kartzeletako ibilbidea hasi zuen orduan Bernardok. Hasieran Langraitzera eraman zuten, eta gero Soriara. Sorian bilduta zeuden garai hartako preso politikoak. Oraindik ez zegoen are gehiago zigortzeko asmatu zuten dispertsio madarikatua. Presoak erakundeka banatuta zeuden, eta komando autonomoetakoak denak elkarrekin. Pasillo handi batean zeuden *miliak*, beste batean *poli-*

miliak, eta hirugarrenean autonomoak. Pasillo horietan banatzen ziren gelak zabalik egoten ziren. Beraiek antolatzen zuten denboraren banaketa, sukaldea, zerbitzuak, etab. Han saiatu ziren beraien antolaketa eredia praktikan ipintzen. Orduan espetxeetako funtzionarioek zaintzen zuten kartzela, baina gero polizia nazionala sartu zuten. Orduan espetxeko baldintzak gogortu egin ziren, zailagoa egin zen presoen autoantolakuntza. Gero Alcalako espetxera bidali zuten Kabra.

Alcalan ez zegoen Sorian zegoen autoantolakuntzarako aukerarik. Zailtasunak zailtasun, Kabra saiatu zen eztabaidetan parte hartzen, eta hausnarketak bideratzen. Gelditu diren idatzi gutxi horien artean, bada aldizkari baten beharra aldarrikatzen duenik. Erdaraz idatzita dago, eta proposamenen artean honakoa dago:

"...aldizkaria, non jende autonomoaren arteko eztabaidak jasoko diren, non jendeak nahi duenari buruz askatasun osoz idatziko duen; autonomiaren arloan dau den borroka esperientzia ezberdinak idatziz jasoko lirateke... Mugimendu Autonomoko jendearen laguntza eta parte hartzearekin.

Aldizkari honek antolaketa guztiz asanblearioa izan beharko luke, eta bertan ez da izango ez inongo

zentsurarik, ez inolako erredakzio kontseilurik. Aldizkari horrek borroka eta mugimendu horien guztien adierazpidea izan behar du, eta ez betikoek sortutako aldizkari teoriko hutsa” (15).

Gero proposamenari honakoa eranstean dio: *“Berez antolaketa modu hau izan da dagoeneko Urolaldeko aldizkari baten. Iritziak izenekoari buruz ari gara” (16).*

Ez zen Bernardo geldirik egotekoa. Baina bada erreferente garrantzitsua izan eta berak parte hartu ezin izan zuenik. Gerraundi baserrian bizitzen jarri zen talde handi bat, bizimodu berri bat praktikan jartzeko asmoz. Komuna deitu izan zaion esperientzia hura beti famatu izan zuen Bernardok, eta historia hura idatziz jartzeko asmoa ere bazuen. Ez zuen astirik izan, baina idatzita utzi zuen bere iritzia elkarrizketa batean.

“...esperientzia garrantzitsuenetako bat 1978. urtean gertatzen dun Azpeitian eta gure dinamika berri hauen ondorio bat izan zela ezin ukatu daitekeena. GERRAUNDIko esperientzia ezin dezakegu inolaz ere alde batera utzi: honek bai geuri eta bai herri mailan kontradikzio pila bat kaleratu zizkinan, bai erlazio mailan, baita bizitzeko era desberdinean ere. Gerraundi Azpeitian zegoen baserri bat zunan, alokairuan hartu zena eta

Kabra Alcala kartzelako gelan.



Alcalako patioan lagunekin. Kabra ezkerretik aurrena.

gazte batzuek bertan bizitzen jarri zirena. Kontuan izan behar orain dela hogeituroko istorio batez ari garela, eta garai haietan ez zela batere erraza etxetik irten eta gazteek elkar bizitza komun bat egitea... ikusiz garai haietan KOMUNA arazo hori nahiko despektiboki agertzen zela herriaren aurrean. Eta komuna honetan bizi zirenek denek kaxa komun bat zutenek, lan egiten zutenek beren sosa kaxa horretara botatzen zizkintzen eta lan egiten ez zutenek diru beharra izanez gero, kaxa horretatik hartzen zutela dirua, hau orduan nahiko esperientzia ona izan zela eta era berean gogorra herriko jendeak ulertzen zuelako denak batera bizitze hori kontzeptu despektiboenean. Eta gure artean ere kontradikzio batzuk apurtzeko balio izan zuela ezin ukatu” (17).

ASKATASUNA

Sei urte egin zituen Bernardok kartzelan. Kondena handiagoa zen, baina sententzia orrietan akatsa zegoen, eta bi kargutatik bat transkribatzea falta zen. Transkripzioa egin zuenak itxuraz atal bat sartzea ahaztu egin zuen, eta kargu horietako bat idatzi gabe gelditu zen. Abokatuaren esanetan, Bernardok zortea izan zuen aldi bakarra izango zen. Baina ez zen zorte makala izan orduko.



Kartzelatik irteñ berritan,
gurasoekin Xoxoten.

Kontua da behar baino lehenago atera zela kartzelatik. Azpeitira itzuli, eta Danonan hasi zen berriro lanean. Gizarte Segurantzian 1985eko azaroaren 1ean eman zioten alta. Azken aldia izango zen.

Bernardok ez zuen gustuko langilea jabearen menpe egituratzen zen gizartea. Ezta kooperatiba eredu ere. Han ere arduradunak eta langileak zeuden. Itxuraz denak ziren bazkide, baita Bernardo ere, baina ez denak berdinak. Bazkideen artean ezberdintasunak ikusten zituen Bernardok, eta ez zegoen batere gustura. Horrela, kooperatiba uztea erabaki zuen. Eta Elizkalean, *Oriyonekoen* etxean, aitak ikatz biltegia eta tornulari tailerra izan zuen lekuan inprenta zabaldu zuen. Joxe Manuel anaia eta bien artean zabaldu zuten. Sarreran denda zeukaten, eta atzean kopistegia.

Makinak Bilbotik ekarri zituzten, itxitako beste inprenta batetik. Handia zen, eta grua batekin atera behar izan zuten. Gero denda berrian sartzeko kristala kendu eta rodiloekin sartu behar izan zuten atzeko partera.

Beti izan zuen gogoko inprentako lana. Agian Urbigainen multikopista izan zuen garaian gustura aritu zelako. Marije bikotekideak dio liburuak “tragatu” egiten zituela. Gainera, bere kontura egiten

Kabra plazako kioskoan.



zuen lana, eta ez zuen nagusi baten menpean egon beharrik. Ilusioa zeukan, baina hori ez zen nahikoa izan. Bi edo hiru urte iraun zuen inprentak. Egia esan, ez zuen ondo funtzionatu. Azpeitian ez zegoen lekurik inprenta txiki baterako, eta itxi egin behar izan zuten. Ustez pozik har zitzaieten zenbait lekutara bidali zituzten liburuak eta materiala.

KIOSKOA

Ordurako Marije bikotekideak kioskoan egiten zuen lana. Bernardoren osabak norbait behar zuen, eta Marije hasi zen lanean bertan, 1990ean. Inprenta itxi eta gutxira, Bernardo Marijeri laguntzen hasi zen kioskoan. Marije ondoezik zenean, Bernardo joaten zen, eta txandaka bada ere, bien artean soldata bat ateratzeko modua egiten zuten.

Goizeko 05:30erako joan behar izaten zuten, eta goiz eta arratsalde izaten zuten irekita kioskoa. Poliki-poliki Bernardo gero eta gehiago joaten zen kioskora. Marijek beste asmo batzuk ere bazituen, eta 1992an denda zabaldu zuen lehen inprenta zegoen lekuan.

Orduan Marijek kioskora joateari utzi zion, eta Bernardo gelditu zen kioskoan, Marijeren lekuan.

Osabarekin tratua egin zuen, hilean alokairu bat ordainduta. Horrela, urte batzuk egin eta gero, osabak eskualdatu egin zion negozioa, eta kioskoa Bernardoren izenean geratu zen. Han jarraitu zuen, gaixotasunak galarazi zion arte. Uztarria aldizkariak elkarrizketa egin zion 2006ko urtarrilean, 69. zenbakian. Bertan aipatzen du Elizkaleko denda itxitakoan hasi zela lanean kioskoan, eta hamalau urte daramatzala. Txikitako ametsez galdetzen dio kazetariak, eta honakoa izan zen Bernardoren erantzuna: *“Lehen ez zunan orain bezala. Orduan oraingo aldean aukera gutxi zegonan”*. Eta garbi adierazten du zer ez zuen izan nahi: *“Garbi nuen futbolaria edo horrelako ezer ez nintzela izango behintzat”*.

HAUSNARKETAK

Borroka armatua amaitua zegoen. Baina Bernardok jarraitzen zuen autonomiari buruzko hausnarketak egiten. Baita ordura arte egindako ibilbidearena ere, noski.

Liburu honetako pasarte gehienak garai hartan egindakoak dira. Arloka banatu baditugu ere, autonomia beti azalduko da borroka sozialekin lotura estu-estuan. Hauek ere bere hitzak dira:

“Iharduera autonomoak borroka sozialak bide berrietatik eramango ditu, eta gaur egun gure filosofiatik kanpo edo urrunekoak diren arloetan borroka berriak ikusiko dira, 1978an gertatu bezala” (18).

Emakumeak, gazteak, soldaduska... dira horietako arlo batzuk. Elkarrizketa batean jasotakoak dira honakoak:

“Urte hauetan ikusten dinagu arazo berriak eta borroka mota berriak agertzen direla maila sozialean eta gero eta zatiketa handiagoa dugula mugimendu abertzale klasiko eta mugimendu autonomo bezala ezagutzen gertueneren artean, ideologikoki baino gehiago, hasiera batean behintzat, eguneroko bizitzako borrokan” (19).

Pasaiako hilketen liburuan (1984ko martxoaren 22an Komando Autonomo Antikapitalistetako lau militante hil zituzten, tartean *Kurro* eta *Pelitxo* azpeitarrak; 2003. urtean argitaratu zen liburua) sarrera egiten duen mugimendu autonomoaren historia berak idatzi zuen. Zenbait artikulua ere idatzi zituen. Harremana zuen hemengo eta kanpoko mugimendu autonomoekin, bereziki Bartzelonako lagunekin. Hitzaldiak ere eman zituen han eta hemen. Bartzelonan apendizitisa sortu zitzaionean, hitzaldi bat ematera joana zen. Ordubeteko elkarrizketa ere grabatuta geratu zen. Hausnarketak, bereziki

autonomiaren hausnarketak, ez zuen etenik izan Bernardoren bizitzan.

IRTEERA KOLEKTIBOAREN AUKERA

Preso *milien* kolektiboan, eta orohar ezker abertzaleko jendearen artean, borroka armatuaren amaiera halabeharrez negoziazio baten ondorio izango zela uste zuten. Ezker abertzaleak eta preso *milien* kolektiboak garbi zeukaten ETA (m) erakundearen eta Espainiako Gobernuaren artean negoziazioa izango zela, eta akordioa lortu ondoren presoak kalera aterako zirela. Argeleko negoziazioak 1989an burutu ziren ETA (m) eta Espainiako Gobernuaren artean. Lehenengo negoziazio hori porrotarekin amaitu zen. Ez zen akordiorik lortu.

Pasaiako hilketen ondoren, Komando Autonomo Antikapitalisten jarduera ia amaitutzat eman daiteke. Ekintza armatuen gainbehera izango da, desagertzeraino. Ekintza batzuk izan ziren, oihartzun gutxi izan zutenak. 1986ko apirilean izan zen azkeneko errebindikazioa. Orduetik aurrera ez da komando autonomoen ekintzarik agertzen. Hilik ez zirenak, preso zeuden edo beste herrialde batzuetara kanporatuak izan ziren. Eta autonomo-

en presentzia zuten borroka sozialak gutxituta zeuden, gehienak borroka armatuaren ekintzetan erreta zeudelako. Autonomoen mailan, ez zegoen negoziatuko zuen talde armaturik, ez babes sozial nahikorik.

Negoziazio baten aurrean zein izango zen beraien jokabidea? Kabrak berak, Alcalako kartzelan zegoela, idatzia prestatu zuen beste preso autonomo batzuekin, beraien iritzia emateko. Ez zen, noski, ezker abertzalearekin batera joatearena. 1983ko urtarrila zen. Ondorengo beste idatzi batzuetan, batzuek balizko negoziazio horien arabera emandako akordioekin bat egitea proposatu zuten, baina gehienek diskurtso ezberdina mantentzea onartu zuten, ez zetozelako bat ezker abertzalearen ideologiarekin.

1991ko udaberrian, *Autonomoetaz eztabaida* txostena zabaldu zen. Bertan, preso autonomoen irteera kolektiboa planteatu zen. Udan, preso batek eskutitza luzatu zuen: *“Presoek eta errefuxiatuek lehenaren ondorioa gaur egunean pairatzen dute, gerorako ikuspegiarik gabe”* (20). Ordurako bost urte ziren batere ekintzarik gabe.

Eta irteera kolektibo horretarako aukera bat zabaldu zela uste izan zuten. Preso autonomo

batek familia artekoa zuen PSOEko senatari bat. Familiako kontaktuen bidez, senatari horrek Gobernu harremanak hasteko prest egon zitekeela adierazi zion preso horri. Eztabaida zabaldu zen. Kanpoko jendearen artean lehenbizi, errefuxiatuen eta presoen artean gero. Halere, koordinazio arazo handiak zeuden. Presoak, sakabanatuta. Kanpoko jendea, batzuk “lagunen eta senideen taldea” edo “familiarak” deitzen zitzaion taldean, baina beste asko antolatu gabe. Errefuxiatuak, urruti.

Kontsulta batzuk egin ondoren, hasierako kontaktua egitea erabaki zen, eta eztabaida esparru guztietara zabaltzea. Ez zen negoziazio modura planteatu, eztabaida ez zen sekula horraino heldu. Irteera kolektibo bat bideratzeko aukera zen ustez jokoan zegoena. Kabra hori guztia koordinatzen saiatu zen. Kartzelan zeuden preso guztiak bisitatzen saiatu zen. Venezuelara eta Mexikora bidaiak egin zituen, hango errefuxiatuen iritzia jasotzeko. Hori guztia, baina, ezinezkoa izan zen, nahaste handia sortu zen. Horrela dio hasierako kontaktua egin zuen presoak:

“Luzaroan saiatu naiz preso autonomoen artean eztabaida sor dadin, ideiak argitzeko, ez baitzegoen iritzi bateraturik eta, are gehiago, batzuetan elkarren aurkako

jarrerak sortzen ziren... poztu egin nintzen behingoz jarrerera komun bat hartzeko ahalegina ikustean.

Gobernuarekin harremanetan jartzeko eskatu zitzaidanean horrela egin nuen. Eskaini zitzaidana espetxe batean, ziur aski Langraitzen, preso autonomo guztiak batzeko aukera besterik ez zen izan. Horrela Gobernuarekin balizko irtenbideei buruzko elkarrizketa bideratuko genukeen, bai presoentzat bai errefuxiatuentzat. Irtenbideak asanbladan eztabaidatuko ziren, jarrera bakarra hartu nahian.

Harridura sortu zitzaidan guztia lehertu zenean. Zenbait preso harremanetan hasi ziren, bai beraien kontura bai espetxeetako zuzendariak galdetuta, errespetatu gabe, eta nik uste hala behar zuela, nire hasierako ordezkaritza. Iritzi batasuna galdu egin zen.

Jendeak ez zekien harremanak oso-oso hasierakoak zirela, ezer garbi izan gabe, eta guztia espetxean egin beharreko preso autonomoen asanbladaren menpe. Nik eman baldin banion hasiera elkarrizketari, nire solaskidetzara errespetatu behar zen, beste norbait izendatu arte. Ezin dira solaskide bat baino gehiago izan, bakoitza irtenbideari buruzko bere ikuspegi bereziarekin hitz egiten administrazioarekin” (21).

Dena okertu egin zen. Harremana bideratzea onartuta zegoen, baina Madrilek begirada lau

pauso aurrerago jarri zuela dirudi. Proposamena zen preso autonomo guztiak Langraitzen elkartzea, han asanbladak egiteko eta denen adostasunean erabakiak hartzeko. Eta kanpoko jendeari erraztasunak ematea barruko jendea bisitatzeko. Hori guztia, baina, ez zen gertatu, eta azkenean inork ez zekien gauzak nola zeuden. Nahasteak barruko jendearen arteko haserreak ere sortu zituen. Bideratzen saiatu ziren, baina alferrik.

Egoera horretan, batzuk (*“mugimendu armatu honetan parte hartu zuten eta gaur egun erbestean dauden pertsonak”*) (22) Egin egunkariarekin harremanetan jarri ziren prozesu guztia boikotatzeko. Egineko titularra oso maltzurra zen: *“Gobernua egitasmoa prestatzen ari da, Komando Autonomoetako presoak damu daitezen lortzeko”* (23). Eta Kabra egiten zuen operazioaren buru. Berehala etorri zen *“Komando Autonomoetako preso eta errefuxiatuen lagunen eta senitartekoen batzordea”* (24) taldearen erantzuna, Eginetik zioena ukatuz. Gero Kabra beraren erantzuna etorri zen.

“Kabrak adierazi du bere lan bakarra taldean dagoen eztabaida koordinatzea besterik ez dela izan, eta bera ez dela bergizarteratzea deiturikoaren alde azaldu. Zehaztu du badela presoek ustezko irtenbide duin bati buruzko

eztabaida, baina gaineratu du honi buruz ez dagoela inolako jarrera finkorik" (25).

Alferrik. Eztena gero eta barrurago sartuta zegoen. Bidea itxita geratu zen. Ez zen *Eginek* maltzur jokatzeko lehenengo aldia. Presoek kondenak oso-osorik bete beharko zituzten. Sekula ez zen bergizarteratzearen bidea onartu, ez aurreko eztabaidetan, ez oraingoetan. Bestelako irtenbide kolektibo baten aukera amaitu egin zen. Kabrak min handia hartu zuen, ez zuen espero batzuek jokatu zuten bezala jokatzeko, are gutxiago bera horrela zikintzea, eta batzueganako etena sortu zen luzarorako.

'LA RUBIA'

Dohainen bat baldin bazeukan Bernardok, hori jendearenganako arreta zen. Are gehiago, berarekin hurbileko harremana edo beraiengandik laguntza jaso izan baldin bazuen. Beste aldean ibilitakoan ezagutu zuen Bernardok *La Rubia*.

Errenteriarra zen. Erizaintza titulua atera zuen Madrilen, eta Parisera joan zen lanera. Han ezagutu zuen bere senarra izango zena. Ezkondukoan Argelera joan ziren bizitzera, eta zazpi seme-alaba



Bartzelonan egin zioten
elkarrizketaren une bat.



Hil ondoren Elosun egindako
omenaldia, azaroaren 1ean.

izan zituzten. Han alargun gelditu, eta Hendaiara etorri zen bizitzera. Seme-alaba zaharrenak 14 urte besterik ez zituen senarra hildakoan. Nahi izan zuen erizain titulua Frantzian homologatzea, baina agiria galduta zeukan, eta ezin izan zuen. Gerora, Donibaneko ospitalean, geriatriako sailean, hasi zen lanean, jubilatuta arte.

Kabarak beste aldera bigarrenkoz joan zenean ezagutu zuen. Lagundu egin zion, eta elkar oso ondo hartu zuten. Bigarren ama bezalakoak izan zen Bernardorentzat. Eta horrelakoetan, Bernardo harremana bizitza osoan mantentzen saiatzen zen. Berdin gertatzen zen ospitalean ezagututako Lazkaoko familia batekin. Bernardo bizi zela mantendu egin zuten harremana, eta gaur egun ere Marijek eutsi egiten dio. Bernardo horretan saiatzen zen.

Bernardok txikitatik ezagutu zituen La Rubiaren umeak, eta amari “Kabrarekin goaz” esanez joaten ziren berarekin. Eta esan bezala, elkar oso ondo hartu zuten eta harreman ona izan zuten. Gerora, hilean behin bisitatzerako joaten saiatzen ziren. Asko eman, eta La Rubiak gutxi jaso izan zuen ustea zeukaten Bernardok eta Marijek. Askok Iparraldea erabili eta erre egin dutela uste dute, eta gero ahaz-

tu. Betebeharra izango balitz bezala. Jendeak ez dio eskertu egindako lana, eta Hegoaldera etorri eta gero gehienek ez diote bisitarik egin. Ez zen hori Bernardoren kasua.

Donostiara ere etorri zen bizitzera La Rubia. Bernardok etxeko giltza zuen, eta bisitan joandako batean atea ireki, eta zartagina sutan aurkitu zuen, etxe osoa suak hartzeko zorian. Orduan alabaren etxera joan zen La Rubia, Hendaiara. Han bizi da orain, eta Marijek harremanari eusten dio.

OSABA SANTOS ZAINTZEN

Munizipalek abisatu zioten. Osaba anbulatorio aurrean mareatu eta erori egin zela. Hori izan zen osaba Santos en gaixotasunaren hasiera. Bernardo osabaren etxera joaten hasi zen, laguntzera. Noizbehinka hasieran, gero eta sarriago ondoren. Osaba nahiko erreserbatua zen, eta ez zuen jendea bere inguruan ibil zedin nahi. Bernardo bai, osabak nahi izaten zuen Bernardo laguntzera joatea, baina ez beste inor. Gerora Marijeren laguntza ere onartzen hasi bazen ere, Bernardo zen osabaren gustukoa, edo konfiantza handiena ematen ziona, behintzat.

Esan bezala, Bernardo osabaren etxera joaten hasi zen. Komunera lagundu, janaria prestatu, garbitasuna bideratu... Gaixotasunak aurrera egin ahala, gero eta behar handiagoa zuen osabak. Hasieran goizean gosaria ematera joaten zen, eguerdian bazkaria... Denborarekin Bernardo goizean goiz ere joaten hasi zen, kioskora sartu baino lehen. Berdin arratsaldez eta gauez. Azkenean, egunero bost buelta eginez eman zituen Bernardok hiru urte. Kioskora joan aurretik lehenengoa, gosaria ematera bigarrena, eguerdian kioskoa itxi eta bazkal orduan hirugarrena, arratsaldez kioskoa itxitakoan merienda garaian laugarrena, eta ohera joan aurretik afaria ematera bosgarrena. Egunero-egunero gutxienez bost buelta, hiru urte luzez.

Bernardok ezin zuenean, Marije ere joaten hasi zen. Osaba onartzen joan zen Marijeren laguntza.

Hiru urtez Bernardo izan zen osabaren arreta bideratu zuena, ezin izan zuenean salbu. Hil zenean, horrela idatzi zuen bere lagun batek *Berria* egunkariari bidalitako eskutitzean:

"...Beste Kabra gertuko eta maitagarriak markatu nau gehien. Bere arazoez baino gehiago besteen buruhausteez arduratutako Kabra horrek. Harturiko konpromisoak betetzeko ibili beharreko denborak ardura ez

zuen Kabra horrek. Zer esango luke bere heriotzara arte hain ederki zaindu zenuen Santosek? Beste Kabra horrek ez zuen inoiz ahaztu eta bere eskura zegoen guztia egin zuen, duela urte asko, berak behar izan zuenean, lagundu zioten pertsona horien guztien alde” (26).

2007ko urtarrilean hil zen osaba Santos. Hiru urte luzeko lana bukatutzat eman ahal izan zuen Bernardok.

BERNARDOREN GAIKOTASUNA

Osaba zendu eta gero, haren etxea konpontzen hasi zen Bernardo. Elektrizitate sarea berritzea izan zen lan horietako bat. Lagun batek egin zion hori, Bernardok berak laguntzen ziolarik. Horretan ari zirela, lehenengo atake epileptikoa eman zion Bernardori. 2007ko maiatza zen. Lagunak anbulantziari deitu zion. Hor hasi zen ospitalez ospitale eta medikuz mediku heriotzara eramango zuen Bernardoren bide luzea.

Atake epileptikoak sarriagotzen joan ziren. Lehen lana atake epileptikoak ekiditeko pilula ego-kienak bilatzea izan zen. Proba askoren ondoren, aurkitu zituzten atake epileptiko haiek saihesteko pilulak. Baina oso arraroa zen. Fisikoki eragozten

zizkioten atakeak, baina noizbehinka tartreak izaten zituen inkoherentziak esaten. Hau da, burua joaten zitzaionean, atake epileptiko horietako baten seinalea zen. Ez zion gorputzari eragiten, buruari baizik. Gutxienez, pilulek gorputzari eusten zioten.

Gaixotasuna zela eta, kanpora joateko gero eta kezka handiago zuten, noski. Ez ziren lehen bezala ateratzen. Horrek ez du esan nahi kanpora joaten ez zirenik. Bartzelonako lagunek gonbidatuta joan zen bertara. Autonomiari buruzko hitzaldi bat ematera joateko esan zioten. Gaixotasuna ez zen oztopo izan. Ordubeteko hitzaldia eman zuen.

Han tripako minez hasi zen. Erizainak ospitale-
ra bideratu zuen. Apendizitisa lehertuta eta zabal-
duta zeukan. Berehala operatu zuten. Ahal zen gar-
biena utzi zuten Bernardoren barrena. Lauzpabost
egun egin zituen ospitalean. Gero bertako lagun
batzuen etxean egon zen. Eta azkenean ambulanzian
etxera. Orduan utzi zuen kioskoa, betiko.

Gerora, bizkarreko minez hasi zen. Ziatika diag-
nostikatu zioten, eta mina kentzeko pilulak eman.
Halere, bi egunetara egundoko minarekin jarrai-
tzen zuen Bernardok. Medikuari deitu zioten etxe-
ra joan zedin, eta mina kentzeko erregutu zioten.
Zumarragara bidali zuten, probak egitera.

Erresonantzia egin zioten. “Hezur metastasia” zeukan, eta ezin jakin non zegoen fokoa. Uztaila zen.

Tratamendua jarri zioten. Erradioterapia jaso zuen abuztuan. Irailean errebisioa zeukan Zumarragako ospitalean. Donostiako onkologikora bidali zuten, eta han bi aste eman zituen. Kaltzio nibelak oso goian zituen. Burua joan egiten zitzaion. Hogeita bost urteko garaira, hain zuzen. Hau da, bere borroka urterik gogorrenetara alde egiten zion buruak.

Bitartean mina kendu ezinik zebiltzan. Hasieran hiru egunean behin morfina partxe bat jartzen zioten. Azkenean, egunero-egunero jartzen zioten partxea. Halere, minik ezin kendu. Matia zentrora eraman zuten. Ezer ezin zela egin adierazi zieten medikuek. Gutxienez minik gabe hil zedila eskatu zioten medikuari. Heriotza duina eskatzen zuen Marijek. Han eduki zuten entxufatuta. Oso tratua jaso zutela uste du Marijek. Asteartean, 2008ko urriaren 7an, hil zen. 53 urte zituen.

OMENALDIAK

Webgune eta aldizkari alternatibo askotan agertu zen bere heriotzaren berri. Honako hau emakume

batek idatzitakoa da, egun batzuk beranduago, *Berria* egunkarian.

“Eskerrik asko, asko ikasi bainian hirekin, garai batean funtsezkoa izan zen borroka antikapitalista eta antiautoritarioan bizi izan zenituzten garai ameslari eta borrokalari haiek gurekin banatzeagatik. Zuek bizitako batallitak entzuten orduak igaro nitian, zur eta lur gelditzen ninduan zein inplikazio maila zenuten garai haietan, borrokan, etengabe, justiziaren alde, kapitalismoaren aurka. Asanbladatan askotan sentitzen nian hire konplizitate begirada emakume bezala, ulertuko bahu bezala zein gogorra zen batzuetan, medio hauetan, emakume izatea. Askotan sentitu nauk ulertua, sentitua, baloratua. Gertu sentitu hindudan orduan, gertu ginean, astez aste, antolatuz, gizarte suntsitzailearen aurka.

Agur eta ohore, Kabra!” (27).

Hil eta hilabete eskasera omenaldia egin zitzaion Elosu auzoan, azaroaren 1ean, larunbatean. Bezperan eta hurrengo egunean euria gogoz egin zuen, baina egunean bertan eguraldi ederra egin zuen, omenaldia egiteko tartea utziko balu bezala. Kanpotik etorritako jende ugari izan zen bertan. Bartzelonan egin zioten elkarrizketa baten zatiak eman zituzten, bere pentsaera zein zen garbi azaltzen zuena. Bazkari eder baten ondoren, ber-

tsoak eta zer kontatua ez ziren falta izan. Postal bat ere banatu zuten, bere argazkiarekin. Atzean, Olatz Agudoren irudi bat zekarren, ospitaletik ihes egin zueneko pasadizoa eta data jaso. Irudiarekin eta Aritz Etxeberria *Ministroren* bertso batekin agurtzen zuten Bernardo Aizpitarte Kabra.

Ezkutuko borroka
eta ilunpea
lagunak, familia
ta hire maitea
haragiaren muga
hezurren katea
begiak estaltzean
nolako bakea
azkenean lortu dek
aske izatea!

OHARRAK

1.: “La autonomía obrera es una práctica histórica de la clase obrera y una corriente dentro del movimiento obrero”.

“La memoria colectiva de la lucha armada” taldearen *Emboscada en Pasaia: un crimen de Estado* liburutik. Virus argitaletxea, Bartzelona, 2008. 217. orrialdea.

Gaztelaniazko Wikipedia webgunean honela dio:

“La autonomía constituye una práctica histórica. De ella podemos encontrar distintos ejemplos: la Comuna de París, los Soviets de los primeros tiempos de la revolución rusa de 1917, los comités de 1936. Fueron estos, momentos revolucionarios en los que la clase obrera tendía a autoorganizarse en base a criterios de democracia de base y consejista, intentando ir más allá de la mera reivindicación económica o política. En estas circunstancias, la clase obrera se constituía en protagonista de la lucha, rompiendo con la mediación de la burguesía y sus instituciones. Pareciera que en este contexto la autonomía se conformara como una práctica consecuente con un proyecto de transformación social. Hoy, encontramos una corriente política, una postura vital, una práctica y un hacer que se reivindica abiertamente de la autonomía, es más, que ella misma se auto-

denomina así: autonomía obrera . Esta autonomía obrera encontró también un momento histórico de emergencia en torno a las luchas surgidas en el 68 en diversos países: Francia, Alemania, Italia, EE.UU., Checoslovaquia, México. etc. La autonomía obrera recoge buena parte de ese importante momento de ruptura que fue el año 68 (y que en países como Italia, se alargaría hasta el año 1977), incorporándola a una ya más larga tradición obrerista y en lugares como el Estado español a una también larga tradición libertaria”.

2.: “Cuando se convocan las primeras elecciones generales, surge a nivel nuestro un grupo que debate la participación o no en dichas elecciones, la participación o no en algunas elecciones y la realidad que se nos venía encima con lo que denominábamos democracia-burguesa.

Se debatía la delegación de poder, las organizaciones jerárquicas, el leninismo, etc., y prácticamente se veían como instrumentos válidos los que declaraban a la asamblea como poder absoluto. Se rechazaban los delegacionismos y se hacía hincapié en la contradicción entre dirigentes y dirigidos.

Todos estos debates, amplios para tratar en un pequeño análisis, trajeron la creación de una plataforma

antielectoral y antiparlamentaria. Se trabajó en favor de la democracia directa y se decía: Todo el poder a la asamblea.

Por esto se nos llamaba asamblearios, aunque en el fondo ideológico el debate era entre la línea leninista de las organizaciones y partidos existentes y la línea autónoma de clase. Con ello se planteaba la autonomía de clase como eje de las luchas antiparlamentarias y anti-burguesas frente a los que predicaban el planteamiento de la colaboración de clases como salida del sistema dictatorial al sistema democrático burgués.

A nivel de Euskadi nos encontrábamos con que teníamos en frente a organizaciones abertzales y de izquierdas en los que teníamos amigos. Incluso habíamos militado nosotros mismos hasta hacía poco tiempo atrás”.

113, Pasaiako sarraskiaren kronika (ez dakar egile-rik). Hemeretzigarren urtemugaren omenaldirako argitaratutako liburua, beraz, 2003koa. Ez dakar ez editorialik, ez bestelako erreferentziarik. 73-74. orrialdeak.

3.: “Se trataba de socializar las cuestiones políticas y de hacer ver que cuestiones casi banales de lo cotidiano eran cuestiones políticas. ...los que nos habíamos acostumbrado a debates políticos y de actividades en ámbitos que considerábamos eje para una revolución obrera

(fábricas y poco más) dejábamos de lado las otras facetas de la lucha cotidiana como algo ajeno a nuestra lucha (feminismo, jóvenes, mili, etc.)”.

Idem., 76. orrialdea.

4.: Idem., 11. orrialdea.

5.: Idem., 12-13. orrialdeak.

6.: *Pasaiako sarraskiaren XIV. urtemuga. Azpeitin agerkaria*. Beraz, 1998 urtekoa. Ez dago beste erreferentziarik. Aldizkaria zenbakitu gabe dago, baina aipamena 8. orrialdean agertzen da.

7.: 113, *Pasaiako sarraskiaren kronika* (ez dakar egilerik). Hemeretzigarren urtemugaren omenaldirako argitaratutako liburua, beraz, 2003koa. Ez dakar ez editorialik, ez bestelako erreferentziarik. 13. orrialdea.

8.: Idem., 13. orrialdea.

9.: Idem., 14. orrialdea.

10.: “Bernardo Aizpitarte escapó de la clínica de Beasain”.

El Diario Vasco, 1978ko uztailaren 19an, azken orrialdean.

11.: “La fuga fue descubierta hacia las ocho y cuarto de la tarde por el médico de guardia y la madre y un tío del mencionado joven. Los parientes de Bernardo Jesús habían acudido a la clínica a visitarle y esperaron al joven durante casi una hora, pensando que éste estaría en otro departamento posiblemente haciéndose radiografías. Al ver que no regresaba, preguntaron al médico de guardia y éste especificó que el paciente debería hallarse en su habitación, pues no estaba previsto realizarle ningún tipo de placa.

Examinada la habitación, se descubrió una cuerda atada a la ventana y que descendía hasta el suelo. La habitación que ocupaba el citado joven era la 8-2.^a de la primera planta, por lo que se supone que aquél se descolgó por medio de la cuerda.

Una pareja de la Guardia Civil vigilaba constantemente desde el pasillo la citada habitación. Asimismo, un “jeep” del citado cuerpo solía hallarse estacionado habitualmente en el exterior de la clínica también en servicio de vigilancia”.

El Diario Vasco, 1978ko uztailaren 19an, azken orrialdean.

12.: “Beasain: Presunto militante de ETA fugado de una clínica”.

La Voz de España, 1978ko uztailaren 19an, azken orrialdean.

13.: “Sobre las siete y cuarto de la tarde, la madre y un tío de Bernardo Aizpitarte se dirigieron a visitarle en la citada clínica. Al no verle en la habitación supusieron que se trataba de algún examen médico que le estaban realizando.

Tras una hora de espera, se impacientaron y se dirigieron al médico de guardia para preguntar dónde estaba. El médico en principio se extrañó, ya que a Bernardo Aizpitarte no se le tenía que efectuar ningún examen médico, por lo que se dirigieron a la habitación de nuevo para ver si había regresado.

Una vez allí, y al darse cuenta de que realmente el enfermo no estaba en la habitación, el médico de guardia dio inmediatamente aviso a las fuerzas de la Guardia Civil que tenía aparcado un “jeep” de vigilancia justo debajo de la ventana de la habitación donde se encontraba ingresado Aizpitarte.

En un reconocimiento del lugar se encontró una cuerda de nylon verde que colgaba de un tejadillo de uno de los laterales de la clínica”.

La Voz de España, 1978ko uztailaren 19an, azken orrialdean.

14.: Orijinalean eslogana erdaraz dakar: “Partido obrero, obrero partido”.

Pasaiaiko sarraskiaren XIV. urtemuga. Azpeitin agerkaria. Beraz, 1998 urtekoa. Ez dago beste erreferentziarik. Aldizkaria zenbakitu gabe dago, baina aipamenak 6. eta 7. orrialdeetan agertzen dira.

15.: “...una revista donde se reflejasen los debates entre la gente autónoma, donde la gente podría escribir libremente sobre lo que le parezca; sería una plasmación escrita de las diferentes experiencias de lucha existentes dentro del espectro de la autonomía... con el apoyo y con la participación mayoritaria de la gente del Movimiento Autónomo. Esta revista debe de tener un funcionamiento totalmente asambleario, y en ella no debe de existir ningún tipo de censura ni ninguna forma de Comité de Redacción. Que esa revista sea una expresión de esas luchas y esos movimientos y no simplemente una revista teórica elaborada por los de siempre”.

Sobre la revista, 1982ko urrian bidalitako gutuna.

16.: “Este funcionamiento ha existido ya de hecho en una revista de la zona del Urola. Nos referimos a los IRITZIAK”.

Sobre la revista, 1982ko urrian bidalitako gutuna.

17.: *Pasaiako sarraskiaren XIV. urtemuga. Azpeitin agerkaria*. Beraz, 1998 urtekoa. Ez dago beste erreferentziarik. Aldizkaria zenbakitu gabe dago, baina aipamena 3. orrialdean agertzen da.

18.: “La dinámica autónoma acarreará nuevos derroteros a las luchas sociales y se verán nuevas luchas de sectores que hoy en día nos son ajenos o extraños a nuestra filosofía, como nos ocurrió en el año 1978 con los sectores que hemos mencionado anteriormente”.

113, Pasaiako sarraskiaren kronika (ez dakar egile-rik). Hemeretzigarren urtemugaren omenaldirako argitaratutako liburua, beraz, 2003koa. Ez dakar ez editoria-lik, ez bestelako erreferentziarik. 81. orrialdea.

19.: *Pasaiako sarraskiaren XIV. urtemuga. Azpeitin agerkaria*. Beraz, 1998 urtekoa. Ez dago beste erreferentziarik. Aldizkaria zenbakitu gabe dago, baina aipamena 6. orrialdean agertzen da.

20.: “Los presos y refugiados sufren en el presente algo del pasado pero sin perspectivas de futuro”.

G. T. preso autonomoak 1991ko udan laguntza taldeei bidalitako gutuna.

21.: “Durante mucho tiempo intenté que se creara un debate dentro de los presos autónomos para clarificar ideas, porque no existía una unidad de planteamientos y a veces se daban posturas contradictorias (...) para mi fue un auténtico placer ver que por una vez se intentaba adoptar una postura común.

Una vez que se me instó a establecer contactos con el Gobierno, lo realicé. Lo único que se me planteó era la posibilidad de juntar a todos los presos autónomos en una prisión, Nanclares posiblemente, para iniciar un diálogo con el Gobierno sobre posibles salidas, tanto para presos como refugiados, que se discutirían en asamblea, con el fin de adoptar una postura...

Mi sorpresa fue cuando el tema se disparó. Varios presos iniciaron contactos por separado, bien a iniciativa propia o preguntados por directores de las prisiones, sin que se respetara, como creo debía de ser, mi inicial representación, con lo que se perdió la unidad de criterio... La gente estaba desinformada de que eran contactos muy preliminares, sin nada claro y todo supeditado

a una asamblea en una prisión de los presos autónomos. Si inicialmente inicié el diálogo se tenía que haber respetado mi interlocución, hasta que otro hubiera asumido ese papel. No puede haber varios y cada uno hablando con la Administración de su visión particular al respecto”.

G. T. preso autonomoak 1992ko udan laguntza taldeei bidalitako gutuna.

22.: “...personas que participaron en este movimiento armado y que se encuentran exiliadas”.

Egin, 1992ko apirilaren 1a, asteazkena, 3. orrialdea.

23.: “El Gobierno prepara una operación para conseguir que los presos de los Comandos Autónomos se arrepientan”.

Idem., 3. orrialdea.

24.: “Comisión de amigos y familiares de presos y refugiados de Comandos Autónomos”.

Egin, 1992ko apirilaren 4a, larunbata, 12. orrialdea, eskutitzak atalean.

25.: “Kabra ha manifestado que su única labor ha sido la de coordinar un debate que existe en este colec-

tivo y que él no se ha pronunciado en favor de la llamada reinsertión. Indica que sí hay una discusión sobre una hipotética salida digna de estos presos, aunque matiza que no existe ninguna posición en firme a este respecto”.

Egin, 1992ko apirilaren 9a, osteguna, 11. orrialdea.

26.: *Berría*, 2008ko urriaren 12a, igandea, 6. orrialdea, zuzendariari atalean.

27.: *Berría*, 2008ko urriaren 21a, asteartea, 6. orrialdea, zuzendariari atalean.

UZTARRIAREN PRODUKTUAK

LIBURUAK

Joxe Takolo	Enekoitz Esnaola, 2001
Angel Otaegi	Iban Arregi, 2001
Imanol Elias	Mailo Oiarzabal, 2002
Patxi Altuna	Josune Etxeberria, 2003
Azpeitiko efemerideak	Imanol Elias, 2003
Azpeitiko mendi gida	Lagun Onak Mendi Bazkuna eta Uztarria, 2004
Euskarazko prentsa eta Azpeitia	Uztarria, 2004
Loiolarik ez balitz	Iñigo Aranbarri eta Jose Luis Otamendi, 2005
Otsobeltz	Andoni Salegi, 2005
Urrestillako musika taldeak	Asier Sustaeta, 2006
Azpeitiarrak Espainiako Gerran	Amaia Mendizabal, 2006
Oroitarrri	Kepa Urbietta, 2008

CD-A

Urolaldeko bertso zaharrak	Emiarraitz Bertsozale Elkarte eta Uztarria, 2007
----------------------------	---

LIBURUXKA BIOGRAFIKOAK

Julian Bereziartua	Ander Ugarte, 2009
Leo Etxeberria	Miren Garate, 2009
Valentina Agirre	Olatz Prat, 2009
Santi Lazkano	Nekane Zinkunegi, 2010
Amaia Garmendia	Xabier Otamendi, 2010
Enkarna Arregi	Alexander Silva, 2010
Iñaki Bergara 'Pio'	Monika Juaristi, 2011

UZTARRIAREN BABESLEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



